

HIRIKO

GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO

EUROPAKO KARTA

Hiriko gizon-emakumeei zuzendua

Zergatik, XXI. mendearen atarian, Hiriko Giza Eskubideak Babesteko Europako Gutuna? Giza Eskubideen Adierazpena unibertsala da (1948). Beste konpromiso askok ez al dute, bada, adierazpena indartu eta osatu irismen desberdineko eskubide jakin batzuen babesa azpimarratzeko? Europako Hitzarmenak (1950) jurisdikzio-bermea deritzoguna eskaintzen du. Hala ere, eskubide asko ez dira oraindik egiazki betetzen eta herritarrei kostatzen zaie administrazio eta lege arloko prozeduren amaraunean argia ikustea.

Nola bermatu eskubideak hobe? Nola jokatu hobe? Nola ziurtatu hobe baldintza publikoak norberaren zorientasun pribaturako?

Hortxe sortzen da Hiria.

Hiria gizakiaren etorkizuna bilakatu da. Eta halaxe da landa eremuetako biztanleek hirietarako ibilbide luzea egiten segitzen duten lekuetan, bai eta hiriek joan-etorriko herritar ugari hartzen dituzten tokietan, baina, era berean eta batez ere, halaxe da askatasunaren, lanaren eta ezagutzen trukaketaren bila ari diren atzerritarrentzat.

Gaur egun, hiria topaketa guztien tokia da eta, beraz, aukera guztiena ere bai. Halaber, kontraesan eta arrisku guztien lurraldea da: hirietako muga lausoan esparruan ageri baitira langabeziari, pobrezari eta kultura-desberdintasunak mespretxatzeari iltzatutako bazterkeria oro, baina, aldi berean, elkartasunari lotutako giza eta gizarte jokabideak zirriboratu eta ugaltzen dira.

Gaur egun, hiriko bizitzak berekin dakar eskubide jakin batzuk hobe zehaztu beharra, hartan bizi baikara, hartan lan bila aritzen, hartan mugitzen. Era berean, hiriko bizitzak berekin dakar eskubide berriak aitortu beharra: ingurumena errespetatzea, elikadura osasuntsuaren bermea, lasaitasunaren bermea, trukaketa eta aisiarako aukerak, etab.

Azkenik, Nazio-estatuetan ordezkarietarako demokrazia astintzen duen krisiaren aurrean eta Europako burokraziek sorrarazten duten kezkaren aurrean, hiria sortu da esparru politiko eta sozial berriaren baliabide gisa.

Hirian daude hurbileko demokraziarako baldintzak. Hirian aukera baitago herritar guztiak herritartasunean partaide izateko: hiriko herritartasuna. Zehaztutako eskubide bakoitza pertsona bakoitzarena baldin bada, herritar libre eta solidario bakoitzak huraxe besteei ere bermatu behar die.

Hemen hartutako konpromisoa gure garaiko gizon-emakumeei zuzentzen zaie. Ez du sakona izan nahi eta hiriko biztanleek konpromisoa bere nola egin, halako irismena izango du. Hiriek agertu eta islatzen dituzten herritarren itxaropenei erantzuteko esparrua izan nahi du. Gutun hau

subsidiarioritasun mailan kokatuko da bai herritarrentzat bai beren agintarientzat, horixe baita hiriaren maila. Azken buruan, oinarri multzo bat izango da beren eskubideak aldarrikatzeko, eskubideetan izan daitezkeen urraketak aitortzeko eta urraketoi bukaera emateko.

Oinarri horiek beste hainbat aukera bezala eskaintzen dira zailtasunak gainditzeko eta, era berean, hiriaren bizitzan bertan ezarrita dauden logikak, batzuetan kontraesankorrak, bateratzeko.

Borondate bat: gizarte lotura esparru publikoan iraunkorki txertatzea.

Printzipio bat: berdintasuna.

Helburu bat: hiriko biztanle guztien kontzientzia politikoa handitzea.

Behean sinatzen duten hiriek:

Aintzat hartuta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena, Europako Gizarte-Gutuna eta Giza Eskubideak babesteko nazioartean dauden gainerako lanabesak, hiriko biztanleei aplikatzen zaizkiela beste pertsona orori bezala.

Gogoratuta Giza Eskubideak unibertsalak, banaezinak eta elkarren mendeko direla, botere publiko guztiak haien bermearen erantzule direla, baina era berean gogora ekarrita eskubide horiek ez daudela behar bezala aitortuta eta ez direla nahikoak haien aplikazioa eta babesa ahalbidetzeko mekanismoak, bereziki eskubide sozial, ekonomiko eta kulturei dagokienez.

Argi ikusita hirietako administrazio egokirako, biztanle guztien Giza Eskubideak errespetatu eta bermatu behar direla inolako salbuespenik gabe, gizarte kohesioaren eta ahulenen babesaren balioak sustatuko badira;

Arrazoi horiek erabat ohartuta beharrezkoa dela Hiriko Giza Eskubideen Europako Gutuna, bai hiriko biztanleei aitortutako askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak hotsandiz eta era ulergarrian aldarrikatzeko, bai udal agintarien konpromisoa haiek guztiak bermarazteko beren eskumenekin eta legez dituzten botereekin bat, betiere beren legeria nazionalek ezarritakoaren arabera.

Gizakiaren duintasuna, toki demokrazia eta pertsona guztien ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko aukera emango duen bizitzarako eskubidea errespetatzeko balioetan oinarrituta.

Geure eginda Toki Autonomiaren Europako Gutunaren oinarriak, udal administrazioa eraginkorrago eta herritarrarengandik hurbilago egitea sustatzen

dutenak, eta Giza Eskubideen aldeko Hirien Europako Konferentzian parte hartu zuten hiriek 1998ko urriaren 17an sinatutako Bartzelonako Konpromisoaren gomendioei jarraikiz, herritar guztientzako esparru publiko kolektiboa inolako bereizketarik gabe hobetzeko.

Erabaki dute, adostasunez erabaki ere, honako konpromiso hauek bere gain hartzea:

I. ZATIA XEDAPEN OROKORRAK

I. art. – HIRIRAKO ESKUBIDEA

1. Hiria biztanle guztiena den esparru kolektiboa da. Biztanleek eskubidea dute bere burua politikan, gizartean eta ekologian gauzatzera bideratutako baldintzak aurkitzeko, eta elkartasunezko betebeharrak hartzen dituzte bere gain.

2. Udal agintariak pertsona guztien duintasunaren errespetua sustatuko dute, bai eta hirietako biztanleen bizi kalitatea ere, betiere eskura dituzten bitarteko guztiak erabilia.

II. art. – ESKUBIDE BERDINTASUNAREN ETA EZ-BAZTERKERIAREN PRINTZIBIOA

Gutun honetan adierazitako eskubideak hiri sinatzaileetan bizi diren pertsona guztiei aitortzen zaizkie, beren nazionalitatea edozein izanik ere.

Udal agintariak aipatu eskubideak bermatuko dituzte inolako bazterkeriarik gabe, hau da, kolorea, adina, sexua edo sexu-aukera, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri nazionala edo soziala edozein izanik ere.

III. art – KULTURA, HIZKUNTZA ETA ERLIJO ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA

1. Aitortzen da herritarrek kultura askatasuna erabili eta garatzeko eskubidea.

2. Herritar guztiek beren hizkuntza eta erlijio askatasuna erabiltzeko eskubidea dute. Gainerako administrazioekin elkarlanean, udal agintarien jokabideak hizkuntza talde gutxiengodunetako haurrei aukera emango die beren ama hizkuntzan ikasteko.

3. Udal agintariak herritar guztiei kontzientzia askatasuna bermatuko diete, bai eta erlijioa banaka zein taldeka lantzeko askatasuna ere. Beren nazio legeriaren mugen barnean, udal agintariak behar den guztia egingo dute aipatu eskubidea ziurtatzeko eta ghettoak sortzea eragozteko.

4. Laikotasuna aintzat hartuta, hiriek fededunen eta fedegabeen arteko tolerantzia sustatuko dute, bai eta erlijioen artekoa ere.

5. Udal agintariak bere herritarren historia landuko dute eta hildakoen memoria errespetatuko. Era berean, hilerrien errespetua eta duintasuna ziurtatuko dituzte.

IV. art. – TALDE ETA HERRITAR AHULENAK BABESTEA

1. Talde eta herritar ahulenei berariazko babes neurriak izateko eskubidea dute.

2. Gutxitasunak dituzten pertsonak berariazko udal laguntza jasoko dute. Hartara, etxebizitzek, lantokiak eta aisia lekuek haientzako egokituak egon beharko dute. Garraio publikoak denon eskura egon beharko dute.

3. Hiri sinatzaileek herritar ahulenei laguntzeko politika eraginkorrak egingo dituzte eta pertsona bakoitzari herritartasunerako eskubidea bermatuko diote.

4. Hiriek behar diren neurri guztiak hartuko dituzte herritar guztien gizarteratzea sustatzeko, herritarren ahultasunaren arrazoia edozein izanik ere, eta bazterketa dakarten elkarketak eragotziko dituzte.

V. art. – ELKARTASUNERAKO BETEBEHARRA

1. Elkarren arteko elkartasunezko betebeharrak batzen du toki komunitatea. Toki agintariak ere badute betebeharrak hori, eta zerbitzu publikoen garapena eta kalitatea garatuz gauzatuko dute.

2. Udal agintariak herritarren arteko elkartasun sare eta elkarteak eratzea sustatuko dute, eta betebeharrak publikoak behar bezala gauzatuko direla zainduko.

VI. art. – NAZIOARTEKO UDAL LANKIDETZA

1. Hiriek herrien eta haien kulturen elkar ezagutza bultzatuko dute.

2. Hiri sinatzaileek konpromisoa hartzen dute garapen-bidean dauden herrialdeetako toki taldeekin hainbat sektoretan lankidetzan aritzeko: hiri ekipamenduan, ingurumenaren babesean, osasunean, hezkuntzan eta kulturean. Era berean, herritar gehienak zeregin horri lotzeko konpromisoa hartzen dute.

3. Hiriek bereziki ekonomiako eragileak premiatuko dituzte lankidetzan programetan parte hartzerako eta herritar guztiak programa horiei lotzera, herrien artean hiri eta nazio mugez haratago doan elkartasunezko eta berdintasun osoko sentimendua garatzeko.

VII. art. – SUBSIDIARIOTASUN PRINTZIPIOA

1. Etengabe hitzartu beharra dago Estatuaren, Eskualdeen eta Hirien arteko eskumenak arautzen dituen subsidiariotasun printzipioa, Estatu zentralak eta gainerako administrazioek hirietan dituzten erantzukizunak bazter utz ez ditzaten.

2. Hitzarmen horrek helburu du zerbitzu publikoak herritarrengandik hurbileneko administrazio mailaren mendean egotea, eraginkorragoak izan daitezen.

II. ZATIA

TOKIKO HERRITARREN ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOAK

VIII. art. – PARTE HARTZE POLITIKORAKO ESKUBIDEA

1. Herritarrek tokian tokiko bizitza politikoan parte hartzeko eskubidea dute tokiko ordezkarien aukeraketa libre eta demokratikoaren bidez.

2. Hiri sinatzaileek udal esparruan botoa emateko eta hautetsi izateko eskubidea zabal dadin sustatuko dute adin nagusiko herritar ez-nazional guztientzat, hirian bi urtez bizi ondoren.

3. Parte hartze demokratikoa sustatuko da udal erakundeak berritzeko aldian behin egiten diren hauteskundetatik kanpo. Xede horretarako, herritarrek eta beren elkarteek eztabaida politikoetan aritzeko aukera izango dute, tokian tokiko taldeen interesekoak diren erronken gainean udal agintariei galdetzeko eta beren iritzia adierazteko, dela zuzenki “udal erreferendumaren” bidez, dela bilera publikoen bidez, dela herri-ekimenaren bidez.

4. Gardentasunaren printzipioa babesteko eta herrialdeetako lege antolamenduarekin bat, hiriak gobernu sistema eta administrazio egitura antolatuko dituzte agintariek herritarren aurrean egiazki erantzukizuna izan dezaten eta udal administrazioak gobernu organoen aurrean.

IX. art. – ELKARTE, BILERA ETA MANIFESTAZIO ESKUBIDEA

1. Herritar guztiei elkarte, bilera eta manifestazio eskubideak bermatuko zaizkie.

2. Toki administrazioek elkartegintza sustatuko dute herritarren adierazpen gisa eta haien autonomia errespetatzeko.

3. Hiriak esparru publikoak eskainiko ditu bilera irekiak eta bestelako topaketak antolatzeko. Halaber, hiriak pertsona guztien sarrera libre bermatuko du aipatu esparruetan, arauekin bat.

X. art. – BIZITZA PRIBATUA ETA FAMILIA-BIZITZA BABESTEIA

Hiriak bizitza pribaturako eta familia bizitzarako eskubidea babestuko du, eta aintzat hartzen du familiak egun dituen forma guztiak errespetatzea toki demokraziaren funtsezko eginkizuna dela.

Familiak, sortzen den unetik beretik, eta bere barne bizitzan inork eskua sartu gabe, udal agintarien babesa izango du, bai eta erraztasunak ere, bereziki etxebizitza eskuratzeko. Xede horretarako, beharrik handienak dituzten familiek finantza pizgarriak izango dituzte eskura eta haurrentzako eta zaharrentzako egiturak eta zerbitzuak ere bai.

Udal agintariak politika eraginkorrak garatuko dituzte familia kideen osotasun fisikoa zaintzeko, eta familiaren baitan tratatu txarrak desagerraraztea sustatuko dute.

Hezkuntza, erlijio, kultura eta politika arloetako aukera askatasunarekin bat, toki agintariak behar diren neurri guztiak hartuko dituzte haurrak eta gazteak babesteko, bai eta hezkuntza sustatzeko ere, betiere demokrazia, tolerantzia eta hiriaren bizitzan erabat parte hartzeko aukera oinarri harturik.

5. Toki agintariak behar bezalako baldintzak sortuko dituzte hurrek haurtzaroa goza dezaten.

XI. – INFORMAZIO-RAKO ESKUBIDEA

1. Aintzat hartzen da herritarrek hiriko gizarte, ekonomia, kultura eta administrazio kontu guztietan informazioa jasotzeko eskubidea. Muga bakarrak pertsonen intimitatea errespetatzea eta haurrak zein gazteak babestea dira.

2. Udal agintariak bitartekoak bermatuko dituzte herritarrei eragiten dien informazioa eskuragarria, eraginkorra eta gardena izan dadin. Horretarako, informatika teknologien irakaskuntza, eskuragarritasuna eta aldian behingo eguneratzea sustatuko dituzte.

III. ZATIA

HURBILEKO EKONOMIA, GIZARTE, KULTURA ETA INGURUMEN ESKUBIDEAK

XII. art. – GIZARTE BABESEKO ZERBITZU PUBLIKOETARAKO ESKUBIDE OROKORRA

1. Hiri sinatzaileentzat, gizarte politikak funtsezkoak dira Giza Eskubideak babesteko. Hartara, politika horiek bermatzeko konpromisoa hartzen dute beren eskumenenekin bat.

2. Aintzat hartzen da herritarrek interes orokorreko udal zerbitzuetan libreki sartzeko eskubidea dutela. Horretarako, hiri sinatzaileak gizarte laguntzako zerbitzu pertsonalak merkaturatzearen kontra daude, eta zaindu egingo dute funtsezko zerbitzuak kalitatezkoak eta prezio onargarrietan izatea zerbitzu publikoen beste sektore batzuetan.

3. Hiri sinatzaileek gizarte politikak egiteko konpromisoa hartzen dute, bereziki ahulenentzakoak, bazterkeriari aurre egiteko eta giza duintasuna eta berdintasuna lortzeko.

XIII. art. – HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

1. Herritarrek hezkuntzarako eskubidea dute. Udal agintariek eskola adinean dauden haurrak eta gazteak oinarrizko hezkuntzan sartzeari sustatuko dute. Halaber, pertsona helduen prestakuntza sustatuko dute, hurbiltasunezko esparruan eta balio demokratikoekin bat.

2. Hiriek eskola, hezkuntza eta kultura esparruak eta zentroak jende guztiaren eskura jartzea sustatuko dute, kultura aniztasuna eta gizarte kohesioa oinarri harturik.

3. Udal agintariek herritartasun maila handitzen lagunduko dute pedagogia hezigarrien bidez, bereziki sexismoaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta bazterkeriaren kontrako borrokari dagokionez, eta bizikidetasun eta abegikortasun printzipioak ezarrita.

XIV. art. – LANERAKO ESKUBIDEA

1. Herritarrek behar adina baliabide izateko eskubidea dute, bizi kalitatea bermatuko duen lan duinaren bidez.

2. Udal agintariek ahal duten neurrian enplegu betea lortzen lagunduko dute. Lanerako eskubidea egiazki lortzeko, hiri sinatzaileek lan eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka sustatuko dute, eta langileen eguneratzea eta birziklapena bultzatuko, etengabeko prestakuntzaren bidez. Halaber, langabeentzako eskura dauden jarduerak garatuko dituzte.

3. Hiri sinatzaileek inolako udal kontraturik ez sinatzeko konpromisoa hartzen dute, kontratuak ez-legezko lanaren kontrako klausularik ez badakar, langileak nazionalak nahiz atzerrikoak izan, lege nazionalkiko legezko egoeran nahiz ez-legezkoan egon, eta haurren lana errefusatzeko klausularik ez badakar.

4. Gainerako erakunde publikoekin eta enprekin elkarlanean, udal agintariek mekanismoak landuko dituzte pertsona guztien berdintasuna bermatzeko lanean, eta soldatan, lan baldintzetan, partaidetza eskubidean, sustapen profesionalean eta kanporatzearen kontrako babesean bazterkeria oro eragozteko, hau da, nazionalitatea, sexua, sexu aukera, adina edo gutxitasuna edozein izanik ere. Era berean, emakumeak lanean berdintasunez sartzeari sustatuko dute. Horretarako, haurtzaindegiak sortu eta beste neurri batzuk hartuko dituzte. Ezintasunak dituztenentzat ekipamendu egokiak ezarriko dituzte.

5. Udal agintariek lan babestuak sortzea sustatuko dute bizi profesionalen berrit sartu beharra duten pertsonentzat. Bereziki, udal agintariek lan aukerak dakartzaten jardura berriei eta gizarte onura dakarten jardueri lotutako lan berriak sortzea sustatuko dute: pertsonentzako zerbitzuak, ingurumena, gizarte-aurreikuspena eta pertsona helduen heziketa.

XV. art. – KULTURARAKO ESKUBIDEA

1. Herritarrek kulturarako eskubidea dute bere adierazpen, agerpen eta modalitate guztietan.
2. Kultur elkarteekin eta sektore pribatuekin elkarlanean, toki agintariek hiriko bizi kulturaren garapena sustatuko dute dibertsitatean oinarriturik. Esparru publikoak herritarren zerbitzuan jarriko dira kultur eta gizarte jardueretarako, guztientzako berdintasunean oinarriturik.

XVI. art. – ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA

1. Herritar guztiek etxebizitza duina, segurua eta osasuntsua izateko eskubidea dute.
2. Udal agintariek zainduko dute etxebizitzetan eta auzoko ekipamenduetan herritar guztientzako eskaintza egokia izatea, sarrera mailari lotuta dagoen inolako bazterkeriarik gabe. Ekipamendu horien artean, etxegabeak hartzeko egiturak izan behar dira, haien segurtasuna eta duintasuna bermatuko dituztenak, bai eta bereziki indarkeria eta tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako egiturak ere, eta prostituziotik ateratzen saiatzen direnentzat ere bai.
3. Udal agintariek nomaden eskubidea bermatuko dute hirian gelditzeko, giza duintasunarekin bat datozen baldintzetan.

XVII. art. – OSASUNERAKO ESKUBIDEA

1. Udal agintariek herritar guztiak osasun zaintzaren eta prebentzioan berdintasunez sartzera sustatuko dute.
2. Hiri sinatzaileek beren biztanle guztientzako osasuna globalki sustatzen lagunduko dute, ekonomian, kulturaren, gizartean eta hirigintzan egindako ekintzen bitartez eta herritarren parte hartze aktiboaren bidez.

XVIII. art. – INGURUMENERAKO ESKUBIDEA

1. Herritarrek ingurumen osasuntsurako eskubidea dute, garapen ekonomikoaren eta ingurumen orekaren arteko bateragarritasuna helburu.
2. Horretarako, zehurtasunaren printzipioan oinarriturik, udal agintariek hainbat politika egingo dituzte kutsadurari aurrea hartzeko, zaratak eragindako kutsadura barne, energia aurrezteko eta hondakinak kudeatu, birziklatu, berrerabili eta berreskuratzeko. Hirietako berdeguneak handitu eta babestuko dituzte.
3. Udal agintariek behar diren ekintza guztiak abiaraziko dituzte herritarrek hiria inguratzen eta osatzen duen paisaia hondatu gabe aintzat har dezaten, eta hartan aldaketak eragin ditzaketen neurrien gainean iritzia adieraz dezaten.
4. Udal agintariek garatzen duten hezkuntzak berariaz naturaren errespetua izan behar du oinarri, bereziki haurrentzat bada.

XIX. art. – HIRIGINTZA OREKATU ETA IRAUNKORRERAKO ESKUBIDEA

1. Herritarrek hirigintza garapen antolaturako eskubidea dute, habitataren, zerbitzu publikoen, ekipamenduen, berdeguneen eta guztien erabilerarako egituren arteko harreman orekatua ziurtatzera helburu duela.
2. Herritarren parte hartzearekin, udal agintariak hiriko plangintzaz eta kudeaketaz arduratuko dira, hirigintzaren eta ingurumenaren arteko oreka lortzeko.
3. Esparru horretan, hirietako natura, historia, arkitektura, kultura eta arte ondarea errespetatzeko konpromisoa hartzen dute, bai eta ondare eraikiaren zaharberritzea eta berrerabilpena sustatzekoa ere, eraikuntza berrien beharrak eta horrek lurraldean duen eragina murrizteko.

XX. art. – HIRIAN IBILTZEKO ETA LASAITASUNERAKO ESKUBIDEA

1. Udal agintariak aintzat hartzen dute herritarrek badutela hiriko lasaitasunarekin bateragarriak diren garraiobideak eskura izateko eskubidea. Xede horretarako, pertsona guztientzako eskuragarriak diren garraiobide publikoak sustatuko dituzte, hiri barneko eta hirien arteko joan-etorrien planari jarraikiz. Halaber, ibilgailuen zirkulazioa kontrolatu, arintasuna ziurtatu eta ingurumena errespetatuko dute.
2. Udalerrriak zarata eta bibrazio mota ororen isurpena estu-estuki kontrolatuko du. Halaber, oinezkoentzako eremu iraunkorrak edo denboraldi jakinekoak zehaztuko ditu, eta ibilgailu ez-kutsagarrien erabilera sustatuko.
3. Hiri sinatzaileek behar diren baliabideak baliatzeko konpromisoa hartuko dute aipatu eskubideak egiazki betetzeko eta, behar izanez gero, erakunde publikoen, elkarte pribatuen eta gizarte zibilaren arteko diru-laguntza motak abian jartzeko.

XXI. art.- AISIARAKO ESKUBIDEA

1. Udal agintariak aintzat hartzen dute herritarrek astialdia eskura izateko duten eskubidea.
2. Udal agintariak haur guztientzako esparru ludiko irekiak bermatuko dituzte inolako bazterkeriarik gabe.
3. Udal agintariak parte hartze aktiboa sustatuko dute kirolean, eta kirola egiteko behar diren instalazioak herritar guztien eskura izatea ahalbidetuko dute.
4. Udal agintariak turismo iraunkorra sustatuko dute eta hiriko jarduera eta errendimendu turistikoaren eta herritarren gizarte eta ingurumen ongizatearen arteko oreka zainduko dute.

XX II. art.- KONTSUMITZAILEEN ESKUBIDEAK

Beren eskumenen mugen barnean, hiriek kontsumitzaileen babesa zainduko dute. Horretarako, eta elikagaiei dagokienez, pisu eta neurrien, kalitatearen, produktuen osagaien eta informazioen egokitasunaren kontrola bermatuko edo bermaraziko dute, bai eta elikagaien iraungipen data ere.

IV. ZATIA

UDALEN ADMINISTRAZIO DEMOKRATIKOARI DAGOZKION ESKUBIDEAK

XXIII. art. – ZERBITZU PUBLIKOEN ERAGINKORTASUNA

1. Toki agintariak zerbitzu publikoen eraginkortasuna ziurtatuko dute eta, era berean, erabiltzaileen beharretara egokitzea eta bazterkeria edo gehiegikeria oro eragozteko zainduko dute.

2. Toki administrazioek bere udal ekintza ebaluatzeko lanabesak eratuko dituzte, eta ebaluazioaren emaitzak kontuan hartuko dituzte.

XXIV. art.- GARDENTASUNAREN PRINTZIPIOA

1. Hiri sinatzaileek administrazio-jardueraren gardentasuna bermatuko dute. Herritarrek beren eskubide eta betebeharrak politikoak eta administratiboak ezagutzeko aukera izan beharko dute udal arauen publikitatearen bidez. Arauok ulergarriak izateaz gain, aldian behin eguneratu beharko dira.

2. Herritarrek dagokien toki administrazioaren administrazio-egintzen kopia izateko eskubidea dute, interes publikoko edo hirugarrenen intimitaterako eskubideari dagozkion oztopoak daudenean izan ezik.

3. Honako honi aplikatuko zaio udal agintarien ekintzaren gardentasun, publikitate, inpartzialtasun eta ez-bazterkeriaren betebeharrak:

udal kontratuak burutzeko moduari, betiere udal gastuaren kudeaketa zorrotzarekin bat; udal funtzionarioak, enpleguak eta langileak aukeratzeari, merezimenduen eta lehiakortasunaren printzipioekin bat.

4. Toki agintariei diru publikoen erabilera gardentasuna eta kontrol zorrotza bermatuko dituzte.

V. ZATIA

HURBILEKO GIZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO MEKANISMOAK

XXV. art. – TOKI JUSTIZIAREN ADMINISTRAZIOA

1. Hiri sinatzaileek herritarrak Zuzenbidean eta Justizian hobeki sartzeari helburu duten politikak egingo dituzte.

2. Hiri sinatzaileek gatazka zibilen nahiz zigor, administrazio eta lan gatazken konponbidea sustatuko dute auzitegietatik kanpo, adiskidetze, tratu, bitartekaritza eta arbitrajearen moduko mekanismo publikoen bidez.

3. Hala bada, udal justiziak, herritarrek edo toki gobernuek aukeratutako bake-epaile independenteen bidez (gizon-emakume zintzoak), eskumena du herritarren eta udal administrazioaren arteko gatazkek –errekurtsoak– ebazteko, zuzentasunean oinarriturik ebazteko ere.

XXVI. art. – HURBILEKO POLIZIA

Hiri sinatzaileek hurbileko polizia-kidego oso kualifikatuak sortzea sustatuko dute eta haien eginkizuna “segurtasunerako eta bizikidetzarako polizia” izango da. Aipatu poliziek prebentzio politikak aplikatuko dituzte eta gizalegeko hezkuntzako polizia gisa jardungo dute.

XXVII. art. – PREBENTZIO MEKANISMOAK

1. Hiri sinatzaileek prebentziorako mekanismoak ezarriko dituzte beren lurraldean:

- Gizarte edo auzoko bitartekariak, bereziki alderik ahulenetan.

- Udal ombudsman edo Herriaren defendatzailea, erakunde independente eta inpartzial gisa.

2. Gutun honetan adierazitako eskubideen erabilera sustatzeko eta eskubideon gauzapena herritarren kontrolpean sartzeko, hiri sinatzaile bakoitzak herritarrez osatutako alerta-batzorde bat eratuko du, Gutunaren aplikazioaren ebaluazioaz arduratuko dena.

XXVIII. art. – ZERGA ETA AURREKONTURAKO MEKANISMOAK

1. Hiri sinatzaileek gutun honetan adierazitako eskubideak egiazki gauzatzeko moduko aurrekontuak egiteko konpromisoa hartu dute sarreren eta gastuen aurreikuspenak zehaztean. Horretarako, “aurrekontu partehartzailea” esaten zaion sistema abiarazi ahalko dute. Horrela, herritarrek, batzarretan auzoz auzo edo sektorez sektore antolaturik, bai eta elkarte elkarte ere, beren iritzia emateko aukera izango dute aipatu eskubideak gauzatzeko behar diren neurrien finantzaketari buruz.

2. Hiri sinatzaileek konpromisoa hartu dute beren eskumenaren mendean dauden eremuak edo jarduerak legezketasunari lotuak egoteko gizarte, zerga edo ingurumen gaitan edo beste edozeinetan; eta legezketasunarekin bat ez datozen eremu guztiak desagerraraziko dituzte.

AZKEN XEDAPENA

GUTUNAREN BALIO JURIDIKOA ETA HURAXE APLIKATZEKO MEKANISMOAK

1. Behin onetsita, Gutun hau irekia egongo da nahi duen hiri orok konpromiso honi atxikipena adieraz diezaion.

2. Hiri sinatzaileek toki antolamenduan sartuko dituzte Gutun honetan aurreikusitako printzipio eta arauak hala nola berme-mekanismoak, eta espresuki aipatuko dute udal egintzen oinarri juridikoetan.

3. Hiri sinatzaileek aitortzen dute Gutun honetan adierazitako eskubideek aginduzko zuzenbide orokorraren izaera dutela, eta konpromisoa hartzen dute egintza juridiko oro, eta bereziki udal kontratu oro, errefusatzeko edo salatzeke, betiere bere ondorioek eskubide aitortuei edo beren gauzapeari kontra egiten badiete. Halaber, beren jarduketa ororen xedea izango da gainerako zuzenbidezko subjektuek aipatu eskubideen balio juridiko nagusia ere aitortzea.

4. Hiri sinatzaileek Gutun hau aitortzeko konpromisoa hartu dute eta, horretarako, udal ordenantza eta erregelamendu guztietan espresuki aipatuko dute hiriaren lehen arau juridiko loteslea dela.

5. Hiri sinatzaileek batzorde bat eratzeko konpromisoa hartu dute Gutun honetan aitortutako eskubideen aplikazioaren ebaluazioa bi urtez behin egiteko eta aipatu ebaluazioa jendaurrean jartzeko.

6. Giza Eskubideen aldeko Hirien Konferentziaren Bilerak, hiri sinatzaileen osoko batzar gisa eraturik, jarraipena egiteko mekanismo egokia sortzea erabakiko du, hiri sinatzaileek Gutun hau aintzat hartu eta bete ote duten egiaztatzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENA

Hiri sinatzaileek beren Estatuen aurrean jarduteko konpromisoa hartu dute, Estatuetak nazio legeriek herritar egoiliar ez-nazionaleri udal hauteskundeetan parte hartzeko aukera eman diezaieten, Gutun honen VIII. 2 artikuluan adierazitakoari jarraiki.

BIGARRENA

Gutun honetan barne hartutako eskubideen kontrol juridikzionala egin ahal izateko, hiri sinatzaileek konpromisoa hartu dute beren Estatuei eta Europar Batasunari Giza Eskubideen edo Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren adierazpen konstituzionalak osa ditzaten eskatzeko.

HIRUGARRENA

Hiri sinatzaileek Agenda 21eko Programak egin eta gauzatuko dituzte, NBEk Ingurumenari eta Garapenarenari buruz Rio de Janeiron (1992) egindako Konferentzian hartutako erabakiak aplikatzeko.

LAUGARRENA

Gatazka armatua izatekotan, hiri sinatzaileek udalerria gobernatzen segituko dute Gutun honetan aldarrikatutako eskubideekin bat.

BOSGARRENA

Hirietako ordezkariak 2000ko maiatzaren 18an Saint-Denisen hartutako konpromisoa berretsi beharko du udalbatzak eta, era berean, testuari egoki iritzitako erreserbak egin ahalko dizkio.

Saint-Denis hirian egina, bi milako maiatzaren hemezortzian.